

KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA HAUTATZEKO PROZESUA

BEHIN BETIKO EMAITZAK

Merezimenduen lehiaketaren behin-behineko emaitzen eta behin-behineko azken emaitzen aurkako erreklamazioak aztertu eta erabaki ondoren, Epaimahaiak behin betiko emaitzak onartu ditu. Hona hemen:

NAN	1. ariketa	2. ariketa	Merezimenduak	Guztira
72488551A	43,00	11,50	10,00	64,50
72490113R	34,00	18,50	13,34	65,84
44128117H	31,00	11,00	11,00	53,00
72733978C	24,00	10,00	6,00	40,00

LEHENDAKARIAREN EBAZPENA: IZENDAPENA ETA LAN-POLTSA

Horren ondotik, Udal Elkarteko lehendakariak, 2018ko maiatzaren 28ko B18/0049 zenbakiko ebazpenaren bidez, honakoa erabaki du:

LEHENIK.- Epaimahaiak onartutako hautaketa prozesuaren behin betiko emaitzak onartzea.

BIGARREN.- 72490113R NAN zenbakiko hautagaia bitarteko funtzionario izendatzea, komunikazio teknikariaren lanpostua betetzeko.

HIRUGARREN.- Hautaketa-prozesua gainditu duten hautagaiekin lan-poltsa eratzea, hautaketa-prozesua arautzen duen deialdiko 10. oinarriak zehazten duen eran. Lan-poltsa honek 2 urte egingo ditu indarrean, 2018-05-29tik kontatzen hasita. Hona hemen lan-poltsa:

	NAN	Guztira
1	72490113R	65,84
2	72488551A	64,50
3	44128117H	53,00
4	72733978C	40,00

Errekurtsoak

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen horren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete interesdunek, ebazpen horren jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean,

uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duenaren arabera eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen ohiko Administrazio Prozeduraren Legearen) 114.c) artikuluekin bat etorriz.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, ebazpen horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokete akordioa hartu duen organoari, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epearen barruan. Hori guztia egin dezakete interesdunek lehen aipatutako 39/2015 Legearen 123., 124. eta horiekin bat datozen artikuluen arabera.

Zarautz, 2018ko maiatzaren 28a



UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA
I.F.K.- G- 20392064
Tel.: 943 89 08 08
Urdaneta bidea 6. 20800 Zarautz

Izaskun Altuna
Udal Elkarteko idazkari kontu-hartzailea